

Nortzuk garen

COOPERACCIÓ 1994an sortutako nazioarteko garapenerako elkarte bat da, gure ekimenekin emakumeen ahalduntze prozesuetan, beren eskubideen baliatzean, eta genero berdintasunaren lorpenean laguntzen dugunak, gizarte justizia, giza garapen sostengarri eta bakearen bidean ezinbesteko baldintzak baitira.

Gure elkarteak Beijinggo Ekintza Plataforma eratu baino urtebete lehenago sortuzen. Tarte guzti honetan, gure baliabide eta indarrak emakumeen eskubideen eta genero arteko berdintasunaren alde bideratu ditugu, **garapen, inzidentzia, formakuntza eta sentsibilizazio proiektuekin.**

Mugimendu feministak Beijinggo akordioei egindako jarraipenak erakusten duenez, Beijinggo Ekintza Plataformak adostutako 12 lan eremuen inguruan herrialde batzuek politika eta legedian aurrerapenak egin dituzten arren, emakumeen egoera ez da orokorrean asko hobetu.

Feminizidioa eta emakumeen aurkako beste hainbat mundu-mailako biolentzia mota; lan baldintza kaxkarrak eta esplotazioa, bereziki atzerrirako produktuen eskulan gisa; pertsonen zainketen transnacionalizazioa eta horretan dirauten emakume etorkinen bazterketa; sexu eskubide alorrean gertatutako galerak, eta beste hainbat adierazlek, azken hamarkadako lorpen eta garaipenen mugak eta ahuleziak jartzen dituzte agerian.

Hori guztia, hein handi batean, politika androzentriko eta neoliberalen ondorioa da, zeintzuek gutxi batzuen interesak lehenesten dituzten gehiengoaren ongizatea baino, eta gizonenak emakumeenak baino. Kapitalaren mesederako Lurra suntsitzen duten politikak, demokrazia ordezkari-tza-formalitate soil gisa ulertzen dutenak. Politika hauek dira gaur egun sufritzen ditugun hainbat krisien eragileak (krisi ekonomikoa, krisi energetikoa, goseteak, kalte klimatikoak eta sozialak), eta baita emakumeen eskubideen eta giza eskubideen aldeko borrokan, oztopo.

Guzti horregatik, aditzera ematen dugu:

Gure ikuspegia

COOPERACCIÓ osatzen dugun gizon eta emakumeok zera pentsatzen dugu, nazioarteko garapenerako egiten dugun lanak, giza eskubideak errespetatzearen eta bermatzearen zerbitzura behar duela egon.

Baita ere sinisten dugu gure ekintzen indar eraldatzailea sendoagoa izango dela emakumeen eskubideen aldeko borrokan aurrera egiten dugun heinean, uste baitugu eskubide hauen ukazioa giza garapen iraunkorraren aurkako oztopo nagusia dela.

Esperientziak erakutsi digunez, emakume elkarteak eta mugimendu feministak dira egiaz emakumeon agenda politika publikoetara eta nazioarteko akordioetara eramatea lortzen dutenak, ekintza eraginkorrenetan parte hartzen dutenak, garaipen eta porrotetatik ikasten saiatzen direnak. Tokiko elkarteetan naiz nazioarteko erakundeetan antolatzen diren emakume mugimenduak, bizi dugun eredu androzentriko eta neoliberal hau eraldatzeko indar izugarria duten estrategiak garatuz.

Guzti hau dela eta, gure indar eta baliabideak emakume mugimendu eta mugimendu feministaren agenda eta proposamenak bultzatzera bideratzea erabaki dugu, gizarte eragile hauei, atsegina ez dugun eredu ekonomiko, politiko, sozial eta kultural bat errotik eraldatzeko alternatibak eskaintzeko gaitasuna aitortuz.

Gure xedea

Feminismoan erroturiko ikuspegitik, emakumeen *indartzearen* alde lan egitea, beraien giza eskubideak guztiz errespetatuak izan daitezen gauzatzea, eta genero berdintasuna bideratzea, bakea, giza garapen iraunkorra eta gizarte justizia lortzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Egiazko demokraziak garatzeko eta mundu mailako justizia eta bakearentzako, emakumeen eskubideen errespetu eta gauzatze eza, eta emakume eta gizonek baliabide eta erabaki guneetara iristeko dituzten aukera desberdintasunak, oztopo handiak direla jakitun gara. Horregatik gizon eta emakumeen arteko desberdintasun egoera oro gainditzearen alde lan egiteko xedea adierazten dugu, eta emakumeei beraien eskubideak osoki gauzatuak izan daitezen egozten dizkieten egoerei amaiera ematea, balore, kontzeptu, politika eta ekintza sozialak bultzatuz, genero berdintasunera bideratuta, tokian tokitik, mundu mailaraino.

Emakume mugimendu eta mugimendu feministen proposamenetatik abiatuta egiten dugu lan.

Emakumeen indartzeak soilik bermatuko du giza eskubideen eta genero berdintasunaren borrokan aurrera egitea. Ikuspegi hori dugu amankomunean, eta horregatik dihardugu beraien alboan, gizarte justizia eta giza garapena eragozten dituen emakume eta gizonen arteko botere eta baliabideenganako egoera desberdintsuak gainditzeko borrokan.